


GIPUZKOA

Gipuzkoako datuek ez dute herrialdean ematen den bi abiaduratako hondakinen kudeaketa erakusten. Badira mankomunitateak batezbesteko konpostatze eta birziklapen tasa baino altuagoak dituztenak eta baita batezbestekoaren oso behetik daudenak ere. Hala ere, batazbestekoa HEHko altuena da. Batez ere konpostatzean dago alde izugarria. Bilketa selektiboaren datuari dagokionez, oso esanguratsua da, 2018an %56,9a bildu zen bereiztuta eta mankomunitate batzuetan tasa hau %80tik gorakoa zen. Zabortegiari dagokionez, oraindik errefusa gehiena zabortegira doa, baina berriki martxan jarriko den erraustegiarekin datu hauek izugarritzko aldaketa izango dute: erraustegira doan hondakin kopurua asko igoko da eta zabortegira doazenak murriztuko dira.



(Iturria: Eusko Jaurlaritza)

Erraustegiak dituzten herrialdeetan ematen den beste tendentzia bat birziklapen tasaren beherakada izaten da. Honi gehitu behar zaio Gipuzkoako hainbat herritan hondakinak nahitaez bereiztetik aukerakoa izatera pasa izanak ere ez duela batere laguntzen. Dagoeneko 2013tik birziklapen tasek behera egin badute, erraustegiarekin are baxuagoak izateko arriskua dago.

Europar Batasuneko helburuak konpostatze eta birziklapenean oso gertu daude eta posible izango da betetzea, baldin eta aurreratzen dugun beherakada hori ematen ez bada. Eta zabortegiei dagokien helburuak ere beteko dira hondakinak erretzen hasten direnean, baina helburuak betetzeak ez du esan nahi hondakinen kudeaketa egokia denik, ingurumenarentzat eta osasunarentzat kalteak eragingo baititu erraustegian oinarrituriko kudeaketak.